

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Proiektu hau bakarrik aurrera atera ezin dezakegunez, laguntza eskatzea pentsatu dugu. Horretarako, **hainbat entitaterekin jarriko gara harremanetan**, zeinak lekua eta diru-laguntzak emateaz arduratuko diren beste hainbat baliabideren artean.

Gure lana egiteko beharrezkoa da lokal bat edukitzea, eta horrekin batera toki eroso eta lasai bat. Hori dela eta, **Euskal Herriko Unibertsitatearekin** arituko gara elkarlanean. Donostiako, Bilboko eta Gasteizeko unibertsitateetan jarriko ditugu lokalak eta bertan kafe makina, mahaiak, telefonoak... edukiko ditugu. Hau dela eta argindarra eta sarea EHUren esku utziko genuke.



Diru-laguntzak izango dira proiektuari bizia emateko faktore bakarra, beraz, garrantzitsuena ere bai. Horretarako, **Eusko Jaurlaritzaren** laguntzaz baliatuko gara eta bertan, gobernuaren barnean kokatzen den Emakunde elkartearekin bereziki arituko gara elkarlanean, zeinak gure eta gure langileen aholkurali izango diren, izan ere, Emakunde bere helburuak lortzen lagundu dezaketen elkarre, fundazio eta erakundeekin harremanak ezartzen ditu, bai eta lankidetzan aritu ere. Hortaz, "Oihu" bezalako proiektu batekin lankidetzan ari dela erakustea onuragarria izango zaio, herrialdearentzako garapen bat izango baita segurtasunaren aldetik batez ere.

Bestalde, **Ertzaintzarekin** ere jarriko gara harremanetan, gu baikara haiekin lanean arituko diren bitartekariak, hau da, gure misioa dei horiek Ertzainari komunikatzea da, haiek beraien lana egin dezaten.

"**Beldur Barik**" berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka lan egiten duen sare euskaldunak "Oihu"-ren helburu bera duela jakinik, harremanetan jarriko gara haiekin, hala aholku edo laguntzaren bat eman diezaguten eta baita publizitatearekin lagundu ere.



Psikologoek berebiziko garrantzia izango dute langileak aukeratzeko eta hauek formatzeko garaian. "Oihu" benetan fidagarria izatea nahi badugu, langileak ezin ditugu ausaz aukeratu, hortaz gertukoak ditugun bi psikologoren laguntza izango dugu langilegoa hautatzeko, beharrezko testak eginez. Ondoren, aukeratuak diren horiek formakuntza bat jasoko dute lanean hasi baino lehen: bezeroekin nola tratatu eta egoera desberdinen aurrean nola jokatu jakin dezaten.

Kontuan izanik "Oihu"-ren lan nagusia deiak erantzutea dela, telefonoak behar ditugu: 15 hain zuzen ere, hau da, 5 kokatuko garen gune bakoitzeko (Bilbo, Gasteiz eta Donostia). Hori dela eta, **Euskaltel** enpresarekin hitz egin eta nolabaiteko akordio batera iristea da gure idea, izan ere, hainbeste telefono erostean ziurrenik deskontu bat lortuko genuke. Hontaz aparte, telefonoen tarifa hilean 15 euro ordainduko dugu.

Bestalde, **Aquaservice** enpresarekin jarriko gara harremanetan ura eta ur potoa ekar ditzaten. Bertako langile bat hilabetean behin etorriko da ustutako ur potoa hartzera eta berria jartzera, horrela gure langileak hidratatuta egon daitezten.

